

Desburokratizazio Batzordean informazio eta zehaztasun gehiago eskatu ditu LABek



Gaur **Desburokratizazio Batzordea** burutu da Lakuan. Hezkuntza Sailak aurreko batzordean abenduaren 31rako galdetegiaren erantzunaren txostena eta ekintza plana jasoko gurela esan bazuen ere, **batzordearen aurretik txostenaren inguruko orrialde batzuk jaso ditugu soilik.**

Batzordearen eraketan 2025a amaitu aurretik lan batzuk azkartuko zirela esan zuen Sailak, baina batzordean urratsak motel ematen doaz oraindik. Gainera, **Sailak adierazi du desburokratizazio batzordetik eratorrita baliabide gehiago ez direla egongo**, akordioaren 26 artikuluan behar beste baliabide esleitzea aztertuko dela adierazten duen arren.

Bestalde, Sailak ematen hasi diren urratsak azaldu dizkigu, gehienbat aplikazio informatikoak erabilita prozesuen azkartzeari eragiten diotenak. **LABetik pentsatzen dugu hori urrats bat izan daitekeela, baina ez dela karga burokratikoa behar beste arintzeko nahikoa.** Halaber, batzordearen jarraipen egokia egiteko beharrezkoa da sindikatuok hartu nahi diren ekintza zehatzen informazioa aldeztu aurretik izatea.

Honenbestez, Hezkuntza Sailari **hitzarmena bere osotasunean betetzea** exijitzen diogu, eta **lan zamak murriztuz baldintzak hobetzeko urrats errealak** ematea.